

| | | |
|---|------------------------|---------|
|  | UDAL FOROA Akta | ZK/Nº:2 |
|---|------------------------|---------|

Data: 2017.06.09

Ordua: 9:55

Lekua: Derioko Udaletxean

Partaideak

Derio LHI: Irakasle 1 eta 25 ikasle

Derio BHI: Irakasle 1 eta 15 ikasle

Derioko Udaletxea: Esther Apraiz, eta Jose Luis Ruiz de Eginio

Ingurugela: Beatriz Antón

Ortzadar, S.L.; Jon Imanol Antón eta Beatriz Madero

Helburuak:

- Adostutako konpromiso eta proposamenak Udalari aurkeztu.
- Ikasturtean zehar egindako lana Udalari aurkeztu.

Landutako gaiak -Ondorioak:

9:55 Partaideen harrera:

10:00 Parte hartzaile guztien aurkezpena eta saioaren azalpena (*Ortzadar*).

10:05 Udal Ordezkarien agurra

10:10 Institutuak egindako lanen aurkezpena (*Institutua*)

10:20 Eskolak egindako lanen aurkezpena eta *konpromiso eta proposamenen* irakurketa. (*Eskola*)

10:30 Eskolak egindako proposamenei Udal ordezkarien erantzuna. (*Udal Ordezkariek*).

10:40 Alkatesaren agurra.

10:45 Saioaren amaiera.

Ekainaren 9an, Derioko udaletxean, Derioko Eskola eta Institutuko ikasle eta koordinatzaileak eta Udaleko ordezkariak, batzen dituen Udal Foroa egin da.

Eskolako ikasleek ikasturtean zehar egindako ekintza desberdinak erakutsi eta azaldu dituzte. Honetarako, ekimen horietan egindako argazkiak eta erabilitako materialak aurkezpen txukun batean bildu dituzte. Ondoren, ikastetxeko eta udalerriko kontsumo arduratsua murrizteko hartu dituzten konpromisoen eta udalari egin dizkioten eskaeren irakurketa egin dute.

Udal ordezkariak, proposamenei erantzuna eman diete eta egindako lana eskertu dute. Hurrengo urtean programan lanean jarraitzera animatu zituzten bertan bildu diren ikasle eta koordinatzaileak.

Bukatzeko, udalak hamaiketako eskaini die partaideei.

[Udal foroaren ebaluazioa](#)

[Institutuko aurkezpena](#)

[Eskolako aurkezpena](#)